



CULTURA

# Oier Santos erreterriarraren lehenengo nobela: 'Ez zuten erantzun'

Gertaera misteriotsu batek gaur egungo unibertsitate ikasle batzuei nola eragiten dien kontatu du liburuan

10.11.12 - 01:31 - FELIX IBARGUTXI | DONOSTIA.

0 Comentarios | 0 | 0 | Compartir | 3

0 votos

Oier Santos erreterriarrak bere lehenbiziko liburua plazaratu berri du, 'Ez zuten erantzun' eleberria. Unibertsitate-bizitzan murgiltzen hasi diren sei gazte dira protagonista. Zerbait misteriotsua gertatzen da eta, handik aurrera, guziz aldatuko dira haien bizitzak.

Bera ez da idazle sentitzen, baina gustura idatzi zuen narrazio hau 2008an, eta harrezkero beste bati ere heldu dio. Beraz, oso litekeena da, 'Ez zuten erantzun' honen ostean, beste batzuk etortzea.

«Langabezia nengoen 2008an eta erabaki nuen zozker egitea okupatua egoteko. Unibertsitate-bizitza da liburuko ardatza. Denborari dagokionez, aurretik eta atzetik kontatzen dut, erdira ailegatzeko. Erdian badago gertaera bat, giltzarri suertatzen dena», adierazi digu. Askok irakurri izan du eta batez ere Camila Lackberg du gustuko gaur egun.

Kirolzale handia da Santos, eta korrika egiten zuen bitartean erabaki ohi zuen liburuko pasarteen nondik norakoa. Erreterrian eman zituen bere lehenbiziko 18 urteak, gero Gasteiza aldatu zen, eta han IVEF eta Irakasletza ikasketak burutu zituen. Gaur egun Bilbon bizi da.

Liburu honekin batera, Erein etxeak Uzta Gorria saileko beste titulu bat (Ferdinand Von Schirach-en 'Krimenak') eta Téa Obreth-en 'Tigrearen emaztea' argitaratu ditu, bata Anton Garikanok itzulia, bestea Miren Arratibelek.

Iñaki Aldekoa editorearen esanetan, «'Krimenak' ez da genero beltzeko liburua arrunt bat. Egilea jurista ospetsua da bere herrialdean -Berlín bizi da-. Abokatu defentsari gisa krimen asko ezagutu du gertutik, eta liburua gordintasun berezia dauka. Gizon honek zazpiehun kasu baino gehiagoren ardurua izan du. Liburuan, honenbestez, abokatuaren egitasuna nabarmentzen da. Bizitzatik oso gertu dagoen literatura egiten du Von Schirach-ek».

Liburu honekin Kleist sari ospetsua eman zioten Alemanian. Abokatu eta idazle honen lehenbiziko liburua da hau, eta hamaika istorio bildu ditu bertara.

Hau dio hitzurrean: «Hiltzaile, trafikatzale, bankuetako lapur eta prostitutei buruz aritzen naiz ni. Bakoitzak bere istorioa du, eta ez dira gure oso desberdinak. Izotz-geruza mehe baten gainean dan-tzan bizi gara, azpian hotz egiten du eta heriotza hurbil dago. Izotzak ez die eusten pertsona batzuei, eta hondora joaten dira. Une hori interesatzen zait niri».

'Tigrearen emaztea' liburuari dagokionez, Balkanetan girotutako nobela da, ahozkotasanarekin eta tradiziozko kontaketaekin zerikusi estua duena. Egilea Jugoslavia ohian jaioa da, mendeetan zehar kultura askoren gurutzaleku izandako lurraldea. Errealismo magikoan koka daiteke liburua hau, eta izan da Téa Obreth eta García Márquez konparatu dituenik. II. Mundu Gerran alemanek Serbia bonbardatzean zoologiko batetik ihes egiten duen tigrea eta haren lagun min bihurtzen den emakumea dira protagonistak.

Hau da abiapuntua: Natalia sendagile gaztea Balkanetako kostaldeko herri txiki batera iritsi berria da, umezurtegi batean misio humanitarioa betetzera. Zora lagun eta lankidearekin joana da hara, eta antzinako elezahar eta sineskeriei oso estu lotutako tokia da, bi lagunek berehala ikusi ahal izan dutenez Natalia, dena den, kezkatuago dago bere senideez, egoera bitxian hila baita aitona, Nataliak bereziki kutuna zuena. Haren herio-tza argitu nahian dabilela, aitona biziak zegoen misterio datozkio gogora Nataliari: aitona bere bizitzan behin baino gehiagotan topatutako gizon ikusezin harena -izaki alderrai moduko bat, heriotzaren iloba zela zioena eta arima galduak biltzen zituen-; edo sultanaren zootik ihesi bere herrira iritsi zen tigrearekin izandako harremana.

PUBLICIDAD

[Con la cuenta AZUL 3.40% TAE tus ahorros crecen todos los meses.](#)  
[Únete al club de ahorradores de ING DIRECT.](#)  
[Cuenta NÓMINA de ING DIRECT. Sin comisiones.](#)

TAGS RELACIONADOS

oier, santos, erreterriarraren, lehenengo, nobela, zuten, erantzun

Publicidad

diariovasco.tv

VIDEOS DE CULTURA más vídeos [+]

CULTURA

Clip en exclusiva de 'El origen de los guardianes'

Resultados elecciones País Vasco , Restaurantes Gipuzkoa , ¿quien quiere casarse con mi hijo? , Gran Hermano , Interviú , Gastronomía , Famosos , Televisión , noticias del corazón , Cine , noticias País Vasco

LO MÁS VISTO

- La Ertzaintza detiene a un tercer impli...
- Un teatro 'burla' el IVA con la venta d...
- «Guti dará mucho juego»...
- Undiano Mallenco obligó a Zubikarai a j...

## Las mejores marcas al 70%

Club de ventas privadas de El Corte Inglés. Las mejores marcas con grandes descuentos.

[www.primeriti.es](http://www.primeriti.es)

## El comparador de seguros

Compara ya tu seguro de coche y ahorra ya hasta un 50%.

[www.rastrator.com](http://www.rastrator.com)

## ¿Pierdes pelo?

Solicita desde aquí una consulta y examen de cabello gratis.

[www.alertacapilar.com](http://www.alertacapilar.com)

- Un desprendimiento provoca el desalojo ...
- «Hacia tiempo que no veía al vestuario ...
- Petraeus comenzó su 'affaire' después d...
- Oleada de asesinatos en Sao Paulo...
- Merkel se opone a que salgan del euro p...
- Una seta tan rara como un trébol de cua...
- Del androide soñado a la realidad robót...
- Hallan muertas en León a una mujer y a ...

► LO MÁS COMENTADO

► LO ÚLTIMO DE DIARIOVASCO.COM

► NOTICIAS AL MINUTO (AGENCIAS)

Twitter 0 +1 0 Compartir Recommend 3

0 Comentarios | 0 votos

Para poder comentar debes estar [registrado](#)

Añadir comentario

Iniciar sesión con [t](#) [f](#) [dv](#) | [Regístrate](#)



Escriba su comentario aquí mismo.

La actualización en tiempo real está **habilitada**. ([Pausar](#))

Mostrando 0 comentarios

Ordenar por los más recientes primero

[Suscríbete por e-mail](#) [RSS](#)



vocento

Powered by SARENET

[dv](#) **diariovasco.com**

© Copyright DIARIOVASCO.COM DIGITAL VASCA, S.L.U.  
Registro Mercantil de Gipuzkoa, Libro de Sociedades 1.786, Folio 141, Sección 8ª, Hoja SS-16552, Inscripción 1ª C.I.F.: B20677878  
Domicilio social en Camino de Portuetxe, 2 San Sebastián 20018  
Correo electrónico de contacto [contactanos@diariovasco.com](mailto:contactanos@diariovasco.com)  
Copyright © Digital Vasca S.L., San Sebastián, 2008. Incluye contenidos de la empresa citada, del medio El Diario Vasco (Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.), y, en su caso, de otras empresas del grupo de la empresa o de terceros.

EN CUALQUIER CASO TODOS LOS DERECHOS RESERVADOS:  
Queda prohibida la reproducción, distribución, puesta a disposición, comunicación pública y utilización, total o parcial, de los contenidos de esta web, en cualquier forma o modalidad, sin previa, expresa y escrita autorización, incluyendo, en particular, su mera reproducción y/o puesta a disposición como resúmenes, reseñas o revistas de prensa con fines comerciales o directa o indirectamente lucrativos, a la que se manifiesta oposición expresa.

[Contactar](#) | [Mapa Web](#) | [Aviso legal](#) | [Política de privacidad](#) | [Publicidad](#) | [Master El Correo](#)

### ENLACES VOCENTO

ABC.es  
El Correo  
Elnortedecastilla.es  
Elcomercio.es  
SUR.es  
Qué.es  
La Voz Digital  
ABC Punto Radio  
hoyCinema  
Infoempleo  
Autocasion  
Mujerhoy  
Vadejuegos  
Grada360

Hoy Digital  
La Roja.com  
DiarioVasco.com  
Ideal digital  
Las Provincias  
El Diario Montañés  
Laverdad.es  
Finanzas  
hoyMotor  
Guía TV  
11870.com  
Pisos.com  
Avanzaentucarrera.com  
m.diariovasco.com